
Mungia: Euskara Foroak 2022



Ohar metodologikoak

Txosten honetan agertzen diren edukiak iturri batzuetatik edaten dute:

1. Mungiako Udaleko Euskara Zerbitzuak 2018-2022 epealdiko planari egindako balantzetik.
2. Urria eta azaro bitartean Mungiako herritar guztiei bidali zitzaien galdetegietatik.
3. Epe berean (urria eta azaro bitartean) Mungiako eragile batzuei bidali zitzaien galdetegietatik.
4. Azaroaren 29an, Olalde aretoan aurrez aurre egin zen hausnarketa saiotik.



Guztira, 62 herritarrek erantzun zuten galdetegi laburra eta 12 eragilek galdetegi luzea.

Hausnarketa saioan, ostera, 26 pertsonak hartu zuten parte.

Euskarari dagokionez, txostena euskara batuan idatzita badago ere, bere horretan mantendu dira (akats nabarmenak bakarrik zuzenduz) herritarrek idatzitakoak. Hortaz, kasu batzuetan bizkaiera batuko berba batzuk agertuko dira, euskara batuko beste berba batzuekin nahastuta.

aurkibidea

- | | | |
|----|---------------------------------------------------------------------|--------------|
| 1. | Sarrera | 4.
orria |
| 2. | Euskera sustatzeko
plana 2018-2022:
balantzea (Euskera Saila) | 5.
orria |
| 3. | Lehentasunak 2023-
2027 (Foroak) | 12.
orria |
| 4. | Neurriak 2023-2027
(Foroak) | 19.
orria |



Sarrera

01

Sarrera

Mungiaiko Udala Euskara sustatzeko Ekintza plana, III. Plan Estrategikoa diseinatzen lanean ari da. Aurretik landuak ditu I. Plan Estrategikoa (2015-2017) eta II. Plan Estrategikoa (2018-2022).

Plangintzaldi berrirako, aurrekoetan bezala, euskara planaren diseinua herriko eragilerekin batera egin gura du, hausnarketa eta galdetegien bidez.

Txosten honetan, baina, ez dira jasoko III. Plan Estrategikoko puntu guztiak. Hori barik, txosten honek marko orokorra, lehentasunak eta hausnarketa eta entzuketa prozesuetatik ateratako ekintza proposamenik nabarmenenak jaso ditu.

Hemendik abiatuta, Mungiaiko udalak Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren III. Plan Estrategikoa landu beharko du.

Hausnarketa prozesu hau diseinatzeko eta dinamizatzeko, Mungiaiko Udaleko Euskara Zerbitzuak Emun aholkularitzaren laguntza izan du.

Txosten honetan honakoak jasotzen dira:

- Aurreko Plan Estrategikoaren balantzearen laburpena (Euskara Sailak egina).
- 2023-2027 epealdirako herritarrek hobetsitako lehentasunak.
- 2023-2027 epealdirako herritarrek hobetsitako neurri nagusienak.



02

Euskara sustatzeko ekintza plana 2018-2022: balantzea

Balantze hau Mungiako udaleko Euskara Sailak egin du. Hemen agertzen dena balantze horren laburpena da.

Hasierako helburuak

- Aisialdi eskaintza era integralean euskalduntzea (udalarenaz gain, elkarreana, ostalaritzarena, zerbitzu pribatuena, librea).
- Euskara prestigiatzea: dendetan, enpresetan eta kalean komunikaziorako ohiko hizkuntza bihurtuta.
- Hizkuntz kontzientzia handitzea.

Helburuak lortzeko estrategiak:

- Sareak sortu lehentasunezko eremuetan, behar egiteko eta eragiteko.
- Komunikazioa eta harremanak elikatu, euskaraz sortu eta eskaintzen dena ikusgarri eta erakargarri egiteko.
- Hizkuntza irizpideak eta kontzientzia landu elkarrekin, eten barik.
- Hizkuntza kontzientzia handitu, hizkuntza praktika berriak sortuta.

02

Euskara sustatzeko ekintza plana 2018-2022: balantzea

Helburuen betetze maila

- Aisialdi eskaintza era integralean euskalduntzea (udalarenaz ganera, elkarteena, ostalaritzarena, zerbitzu pribatuena, librea).

Ez da lortu aurreikusitakoa guztia. Berrito ekin behar zaio indartsu. Lehenengo helburu hori da gutxien landu dena, gehien bat pandemiaren erruz. Izan ere, 2020ko martxotik gora (2022ra arte) oso murriztuta egon da aisialdirako eskaintza; eskaintza “ofizialari” neurri batean eutsi egin zaion arren (parte bati behintzat), elkarteek eskaintzen dutena guztiz etenda egon da epe luzean.

- Euskara prestigiatzea: dendetan, enpresetan eta kalean komunikaziorako ohiko hizkuntza bihurtuta.

Merkataritzan kontzientzia sortu eta taldea aktibatzea lortu da. Ikusi baino ez dago zenbat lokalek hartzen duten parte Euskaraldian eta “Hemen Euskeraz” ekimenetan. Eta herritarren pertzepzioa ere horixe da. Argi dagoena da lorpen hori ez dela Plan Estrategiko honi esker lortu huts-hutsean, baina urteotan egindako lanak merkatariekiko konfiantza eta lankidetzeta polita sortu du.

Enpresa mundura heltzea lortu genuen (pandemia aurretik). Hain erdalduna den mundu horretara hurbiltzea eta eurretako batzuk parte hartzeko prest egotea ere gauza positiboa da. Etenari aurre egin eta berrito ekin beharko zaio.

- Hizkuntz kontzientzia handitzea.

Euskarekiko aktibazioa indartu egin da tarte batzuetan behintzat. Euskara berbagai bihurtu da. Oraindik ez dago jakiterik zenbaterainoko eragina izan duten ekintza horiek, baina eragina izan izan dutela sumatzen dugu.

02

Euskara sustatzeko ekintza plana 2018-2022: balantzea

Jabekuntza

Arloak: familia transmisioa, irakaskuntza eta alfabetatze-euskalduntzea

INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
Familia askotan dago bermatuta ulermen-maila.	Etxean eragitea zaila da, esparru pribatua delako.
Nahiko erraz heltzen gara familietara.	Gure inguru linguistikoan euskararen erabileraren aldeko jokabideek energia eta jarraitasun handia eskatzen diete familiei.
Eredu bakarra dago Mungian: D eredia.	Ikastetxeak ez dira nahikoa gizartea euskalduntzeko.
Ikastetxeen foroa oso aktiboa da.	Azken urteotan ez dago ume etorkinentzako laguntza-programarik.
Inoiz baino laguntza gehiago dago Euskara ikasteko (udalak, aldundiak eta EJK ematen dituzte laguntzak).	Ikasleek gero eta denbora gutxiago daukate ikastaroetarako. Modulu laburrak eskatzen dituzte.
Herriak eskaintza zabala dauka euskarazko jardueretan edo taldeetan parte hartu gura duten euskaldun berrientzat.	Berba-txokoak eta Berbalagunek ez dute lortu espero zen parte hartzea.

02

Euskara sustatzeko ekintza plana 2018-2022: balantzea

Erabilera

Arloak: arlo sozio-ekonomikoa, aisia eta kirola.

INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
Merkataritzako lokal asko eta asko prest daude, hala erakutsi dute “Hemen euskeraz” eta “Euskaraldia” ekimenek.	Ostalaritza erdaldunagoa da. Gainera, beste baldintza batzuk ditu. Ezin dira estrategia berdinak erabili.
Zerbitzua euskaraz ematea kalitate markatzat hartzen hasi dira merkatariek azken urteotan.	Ahozkoan bai, baina idatzizkoan (paisajea eta abar) oraindik nahiko erdaldunak dira.
Enpresa batzuk, gutxi badira ere, hasi dira interesa erakusten.	Enpresa arloan egindako ekimenak bertan behera gelditu dira (pandemia).
Udaletik eskaintzen diren aisialdiko ekintza gehien-gehienak (kulturakoak batez ere) euskaraz dira. Eskaintza oso-oso zabala da.	Eskaintzen dena kasu batzuetan oso arrakastatsua izaten da baina beste batzuetan parte hartze txikikoa. Adintarte batzuentzat eskaintza eskasagoa dago, batez ere, nerabeentzat.
Elkarteeak eta ekimen pribatuek umeentzat sortzen dituzten ekimenetan euskararen lehentasuna bermatuta ei dago.	Ekimen ez-publikotik egiten den eskaintzan (ekimen pribatuak, pentsionistak, andrazkoak...) eragitea zaila izaten da.

02

Euskara sustatzeko ekintza plana 2018-2022: balantzea

Elikadura

Arloak: liburugintza, kulturgintza, publizitatea, corpora plangintza eta euskararen kalitatea, hedabideak, IKTak

INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
Liburutegia euskararen arnaguneetako bat da, zerbitzuak (eraikin osoak) euskaraz funtzionatzen duelako.	Liburutegiaren erabiltzaile heldu gehienek gaztelaniazko materiala eskatzen dute, ez da umeen kasua.
Udaletik sortutako kultur eskaintza gehien-gehienean euskaraz da eta oso zabala da, zinematik hasi eta antzezlan, kontzertu edo hitzaldietaraino.	Nagusientzako ekintza elebidunetan (udaletik haragokoak) euskarak presentzia sinbolikoa izaten du.
Herrian oraindik bertoko hizkera oso bizirik dago batzuen artean.	Herriko euskarak daukan indarra ez da orain dela 15 urte zeukana.
Hedabide publikoetan bermatuta dago euskararen erabilera, baita kalitatea ere.	Ez dago herri hedabiderik. Lehen zegoena desagertu zenetik, eztabaida eta gogoeta-saio ugari egon diren arren, oraindik ez da ezelako proiekturik jarri abian.

02

Euskara sustatzeko ekintza plana 2018-2022: balantzea

Elikadura

Arloak: sentsibilizazioa eta motibazioa


INDARGUNEAK	
Euskararen “prestigioan” nahiko aurreratu da azken urteotan, bai komunikabideengatik, bai erakundeen erabilerarengatik eta, orokorrean, bai Euskal Herri osoan egon diren aldaketengatik ere.	Euskarak prestigioa irabazten jarraitzen duen arren, gaztetxoek (9-16 urte) artean ez da lortu euskara “erakargarri” bihurtzea.
Euskararen aldeko jarrera nagusi da herrian.	Herritar askorentzat prestigioa euskaraz jakiteak dauka, euskaraz egin zein ez; hau da, euskaldun izateak ez dauka eurentzat zerikusirik erabiltzen duten hizkuntzarekin.
Herri ekimena (norbanakoena zein elkarte askorena) eta administrazioa batera joatea lortu da hainbat arlotan (Euskaraldia, Herri teatroak, Lore Jokoak, kirol ekitaldi batzuk).	Herri ekimena aktibatzea kosta egiten da, eta horrek huts eginez gero, zailtasun handiak sortzen dira.
Udalak kontrolatzen dituen zerbitzu eta ekimenetan bermatuta dago euskararen erabilera.	Udalak kontrolatzen ez dituen ekimenetan ez dago guztiz kontrolatutako hizkuntzaren erabilera.

02

Euskara sustatzeko ekintza plana 2018-2022: balantzea

Herritarren pertzepzioa

Galdetegi laburrean, herritarrei galdetu zitzaizen zein zen euren pertzepzioa Mungian euskararen erabilerak izandako eboluzioari buruz.




03

2023-2027 lehentasunak

Lehentasun hauek herritarrei eta eragileei zabalduko galdetegiako erantzunak dituzte sorburu. Hortaz, lehentasun hauek guztiak galdetegiak bete dituztenak dira.

Arlokako lehentasunak

Non eragin beharko litzateke? (1etik 7ra)



03

2023-2027 lehentasunak

Lehentasunak familia transmisioan

Familia transmisioa

Eskolatik kanpoko ekintzetan guraso eta hurrek euskaraz egiteko guneak sortzea eta elikatzea: kaleko olgetak, ...



Gurasoentzako euskara ikastaroak ematea.



Guraso eta seme-alaben arteko hizkuntza jokaeretan eragitea.



Gurasoak sentsibilizatzea eta motibatzea, euskara eta euskal kulturari lotutako produktuak ezagutzera ematen eta eskura jarrita.



0 2 4 6 8 10 12

03

2023-2027 lehentasunak

Lehentasunak euskalduntze-alfabetatzean

Euskalduntze-alfabetatzea

Euskara ikasteko sentsibilizazio estrategiak diseinatu eta garatzea: kanpainak, dirulaguntzak, bekak...



Euskaltegietako ikasleentzako gelaz kanpoko ekintzak antolatu, euskararen erabilera eta praktika uztartzeko.



0 1 2 3 4 5 6 7

03

2023-2027 lehentasunak

Lehentasunak irakaskuntzan

Irakaskuntza

Gazteengan eragitea adin talde horietarako erreferente diren pertsonengan oinarrituta, euskara balio positiboekin eta modernitatearekin lotzeko.

Eskolako ekintza guztietan eta ikasleen arteko harremanetan euskararen erabilera sustatzea: eskoletako euskera planak, ahozkoatasuna-bertsogintza...

Nerabe eta gazteekin motibazioa lantzea tailer edo mintegien bidez.

0 1 2 3 4 5 6 7 8

03

2023-2027 lehentasunak

Lehentasunak aisia, kirola eta kulturgintzan

Aisia, kirola eta kulturgintza

Herritarren arteko hizkuntza ohituretan eta motibazioan eragiteko herri mailako ekimen eta egitasmoak.



Mungiarrentzat kirolaren eremuan erakargarriak diren jarduera, ekintza eta zaletasunetan euskarazko eskaintza handitzea.



Erakundeen laguntzarekin antolatzen diren kirol eta kultur ekitaldi garrantzitsuenetan euskara...



Entrenatzaileak eta hezitzaileak euskaraz trebatzeko ikastaroak antolatzea.



Kirolean euskararen presentzia eta erabilera sendotzea, bai antolatutako ekintzetan, baita entrenamenduetan ere.



Aisialdiko ekintzetan erabiltzen den euskararen kalitatea jagotea.

Ez du inork markatu

Helduen aisialdian euskararen presentzia eta erabilera indartzea (kultur eskaintzan batez ere).



Haur eta gazteen aisialdian euskararen presentzia eta erabilera indartzea.



0 1 2 3 4 5 6 7 8 9

03

2023-2027 lehentasunak

Lehentasunak arlo sozio-ekonomikoan

Arlo sozio-ekonomikoa

Ikastaroak (beharreko oinarrizko komunikazio gaitasunetan trebatzeko ikastaroak) antolatzea merkatari eta ostalarientzat.



Merkataritza eta ostalaritzan, kanpoko irudian eta idatzizko zein ahozko komunikazioan euskararen presentzia bermatu eta sustatzea, herritarrek gura duten hizkuntzan erantzuna izateko.



Enpreetan euskararen erabilera handitzea, euskara planak sustatzeko kanpainak eginez eta praktika onak zabalduz.



Enpresen jardunean hizkuntza-irizpideak ipintzeko pausoak ematea.



0 2 4 6 8 10 12

03

2023-2027 lehentasunak

Lehentasunak euskararen elikadura

Euskararen elikadura

Euskarazko hedabideen ezagutza, hedapen soziala eta erakargarritasuna bultzatzea.



Euskararen inguruko ikerketak egitea.

Ez du inork markatu

Mungiaiko euskara jagon eta zabaltzea.



Hizkuntza-paisaia zaintzea, leku berriei izena ipintzeko orduan edota ipinita dauden izenak hobetzeko.



Euskarazko kultura eskaintza handitzea.



Euskarazko sorkuntza bultzatzeko egitasmoak (sariak, lehiaketak...) abian jartzea edo indartzea.



Euskarazko kulturaren kontsumoa bultzatzea.



Euskarazko irakurzaletasuna bultzatzea: irakurketa tailerrak, berbaldiak...



0 1 2 3 4 5 6 7 8 9

Neurriak

04

Neurri hauek guztiak 2022ko azaroaren 29an Olalde aretoan egin zen foroan proposatu ziren. Lan-talde horiek zehaztu zituzten, beraz, ostean datozen neurriak (eurek idatzitako eran daude, horregatik agertzen dira letra etzanaz).

Zein eremu/gune nahiko zenuke arnasmune izatea Mungian hemendik 4 urtera?

Kirol arloan: kiroldegian, rugby zelaian, ume eta gazteen kirol ekitaldietan, futbol zelaia.

Denda multzo bat, marka daukatenen dendetan.

Jai giroan: jai batzordea, txosnen batzordea, San Pedroetako futbito txapelketan, Olentzero.

Euskal txokoa edo gunea sortu: antzinako Garden, kasurako.

Herriko paisaia linguistikoan.

Herriko elkarteetan: abesbatza, Diz-diz elkarteak, barikuetako kanta-guneak, txokoak.

Ikastetxeak: Legarda, Larramendi ikastola, Bentades, Laukariz.

Neurriak

04

Neurriak familia transmisioan

Zer nolako ekintzak / programak antolatuko ditugu edo antolatu ditzakegu lan eremu honetan?

- Gurasoak sentsibilizatu eta motibatzekeo kanpainak (eskoletako sareen bidez edo jolasguneetan euskera prestigiatzeko kartelak iminiz).*
- Euskal kulturari lotutako produktuen katalogoak ezagutzera eman, banatu, ...*
- Gurasoentzako guneak sortu euren artean euskaraz egiteko.*
- Aktibitate batzuk ume-gurasoentzako sortzea euskeraz izan behar dabenak; adibidez, sukaldaritza edo txalaparta ikastaroak, derrigor aita-semea edo ama-semea edo aitite-alaba etorri behar dabenak.*
- Kanpainak umeek gurasoak “behartzeko”; adibidez, umeek pegatina batzuk eroatea: “aita/ama eistazue euskeraz, mesedez”.*
- Gurasoentzako ikastaroak gutxieneko komunikazioa izan ahal izateko umeekin.*

Zein izan daiteke lan eremu honen lan ildo nagusia? Edo jarduteko modua laburbiltzen duen ideia?

Euskeraren prestigioa da gakoa transmisiorako.

Neurriak

04

Neurriak euskalduntze-alfabetatzean

Zer nolako ekintzak / programak antolatuko ditugu edo antolatu ditzakegu lan eremu honetan?

- Mungiaiko dendari eta ostalariei euskara ikastekolaguntzak eman.*
- Kanpotik datozeinei euskera ikasteko erraztasunak imini.*
- Euskaltegiko klaseei buruzko informazio gehiago eman.*
- Bizkaiera irakasteko moduluak egin.*

**Zein izan daiteke lan eremu honen lan ildo nagusia?
Edo jarduteko modua laburbiltzen duen ideia?**

Neurriak

04

Neurriak irakaskuntzan

Zer nolako ekintzak / programak antolatuko ditugu edo antolatu ditzakegu lan eremu honetan?

- Aisialdi ekintzak eskolatik bultzatzea eta ekintza horien inguruan ariketak egitea. Adibidez, antzerki bat ikusteko gazteak bultzatu (merkeago ipini, notak igo antzerkira joateagatik, ...)*
- Herriko taldeek antolatzen daberen ekintzei publizitate gehiago egin.*
- Eskoletara elkarteetatik 2 edo 4 orduko tailerrak eramatea jendea ekintza horietara erakartzeko eta elkarte horietan euskeraz disfrutatzeke.*

Zein izan daiteke lan eremu honen lan ildo nagusia? Edo jarduteko modua laburbiltzen duen ideia?

Gazteak aisialdiko ekintzak euskeraz egiten animatzeko bultzada eskoleetatik emotea.

Neurriak

04

Neurriak aisia, kirola eta kulturgintzan

Zer nolako ekintzak / programak antolatuko ditugu edo antolatu ditzakegu lan eremu honetan?

- Gazteei zuzenduta dauden foroak antolatu gazteen iritzia entzuteko, udalaren bidez baino, bitartekari interesgarriak erabilia.*
- Ume eta gazteen taldeetan entrenatzaileak edo begiraleak euskaldunak kontratatu eta euskaraz egitea.*
- Kirol edo kultur ekitaldi mistoak antolatu: gurasoak-umeak. Adibidez, mendi irteerak.*
- Gazteak antolatu ahal izateko toki publikoa eskaini.*
- Kiroldegietako ikastaroetan, baita eskola kirolean ere, euskarazko lerroak sortu.*
- Eskolaz kanpoko ekintza guztiak derrigorrez euskaraz izatea.*

Zein izan daiteke lan eremu honen lan ildo nagusia? Edo jarduteko modua laburbiltzen duen ideia?

Gazteak eta euren iritzia entzun, euren beharrak eta gureak ezagutzeko.

Neurriak

04

Neurriak arlo sozio-ekonomikoan

Zer nolako ekintzak / programak antolatuko ditugu edo antolatu ditzakegu lan eremu honetan?

- Kanpoko irudian, karteldegia eta abar euskeraz jartzen dabenei laguntzak eman, zergak kendu, ...*
- Enpresetan euskera planak sustatu eta, praktika onak izanez gero, saritu, laguntzak eman.*
- Enpresa, denda eta taberna barriak hastean, fakturak, dokumentazioa eta administrazio inguruko paper guztien ereduak euskeraz eskeini (hau telematikoki egiten da).*
- Ostalaritzako zerbitzariei: hiztegitxoak, alfabetatzeko aukerea, lehenengo hitza euskeraz.*
- Enpresetan, euskera tituluak eta maila hobea daukien aktibatu eta inplikatu.*
- Denda eta tabernetan neurketak egin eta euskararen egunean saritu erabilerarik altuena edo progresiorik onena lortu dutenak.*

Zein izan daiteke lan eremu honen lan ildo nagusia? Edo jarduteko modua laburbiltzen duen ideia?

Praktika onak bideratzeko laguntza eskaini, aholkularitza eman.
Ahozkoan zentratu denda eta tabernetako kanpainak.

Neurriak

04

Neurriak euskeraren elikaduran

Zer nolako ekintzak / programak antolatuko ditugu edo antolatu ditzakegu lan eremu honetan?

- Udal agendan emon euskerari lehentasuna.*
- Euskeraren aldeko kultur elkarteak gune fisiko batean batu, euskerari presentzia emoteko herrian (Bilboko Kafe Antzokiaren tankerakoa).*
- Hedabide bat sortu herriko edo eskualdeko berriak agertzeko (hedabide digitala).*
- Kontsumoa handitzeko (gazte eta helduena), pizgarriak ipini.*
- Euskarazko liburuen irakurraldi publikoa: hartu liburu bat eta pertsonak bakoitzak orri bat.*
- Eskoletan irakasleak trebatzea bertoko euskeran.*

Zein izan daiteke lan eremu honen lan ildo nagusia? Edo jarduteko modua laburbiltzen duen ideia?